



GAZTE HITZAK 2025

GAZTE
SORKUNTZA

CREACIÓN
JOVEN

SORTZEN

Babesten du /
Patrocina:



Laguntzen du /
Colabora:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



GAZTE

HITZAK

2025

Esku artean duzun katalogoa **Gazte hitzak 2025** Gazteentzako Nanoipuin eta Ipuin Lehiaketan parte hartu duten gazteek egindako lanaren emaitza da, baita ID-ARTE Euskadiko Arte eta Diseinuko Goi Eskolako ikasleen eta irakasleen lankidetzaren emaitza ere.

Lehiaketa hau Gasteizko Udaleko Kultura eta Gazteria zerbitzuek antolatzen dute eta Laboral Kutxak babesten du. Sortzen programaren baitan kokatzen da, gazteriaren sormena sustatzea helburu duela, eta idazketa sortzailea bultzatzea du helburu nagusia. Edizio honetako gaia “zaporeak” izan da.

Bertan, lehiaketako nanoipuin eta ipuin irabazleak aurkituko dituzu, ID-ARTE Euskadiko Arte eta Diseinuko Goi Eskolako Ilustrazioko ikasleek egindako marrazkiekin batera. Material hori guztia irailaren 17tik abenduaren 19ra bitartean egingo den erakusketa ibiltariaren parte izango da, eta Salburua, Zabalzana eta Pilarreko gizarte-etxeetan zein LABE Gazte Laborategian txandakatuko da.

Eskertu nahi dugu bereziki Aitor Larrañaga, Laura González de Durana, Carmen Romero eta Garazi Abrisketa irakasleek izandako inplikazioa euren ikasleekin egindako lanagatik. Espero dugu ID-ARTErekin batera elkarlanean jarraitzea, gazteen eta diziplinen arteko zubiak eraikiz eta sendotuz.

Gasteiz, 2025eko maiatza

El catálogo que tienes entre tus manos es el resultado del trabajo realizado por las personas jóvenes participantes en el Concurso de Nanorrelatos y Cuentos para Jóvenes **Gazte hitzak 2025** y la colaboración del alumnado y el profesorado de la Escuela de Arte y Superior de Diseño del País Vasco ID-ARTE.

Este concurso está organizado por los servicios de Cultura y Juventud del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y está patrocinado por Laboral Kutxa. Forma parte del programa Sortzen del fomento de la creatividad de las personas jóvenes y tiene como objetivo principal fomentar la escritura creativa. El tema de esta edición ha sido “los sabores”.

Dentro encontrarás los nanorrelatos y cuentos ganadores del certamen, acompañados por las ilustraciones realizadas por el alumnado de la Escuela de Arte y Superior de Diseño del País Vasco ID-ARTE. Todo este material, además, formará parte de la exposición itinerante que tendrá lugar entre el 17 de septiembre y el 19 de diciembre, y que irá rotando por los centros cívicos Salburua, Zabalzana, El Pilar y LABE Gazte Laborategia, espacio de creación joven.

Queremos agradecer la implicación del profesorado, especialmente la de Aitor Larrañaga, Laura González de Durana, Carmen Romero y Garazi Abrisketa por el trabajo realizado con sus alumnas y alumnos. Esperamos y deseamos continuar colaborando con ID-ARTE, construyendo puentes entre distintas personas jóvenes y disciplinas artísticas.

Vitoria-Gasteiz, mayo de 2025



Ilustratzailea / Ilustradora: **Iranzu Barona del Tio**

(koloretako arkatza eta gouachea paperean / Lápiz de color y gouache sobre papel)



*Nire eztarriak gogotsu irensten
du irrika handiz hain zapore ona daukan
altxorra. Grina handiz disfrutatzen
dut murtxikatzean nire hortzen
karraska. Gozamena nire ahotik
irristaka doala, bihotza seko gelditzen
zait, konturatzean, ondoko platerean,
buru bat dagoela. Jan dudan
pertonaren burua.*

June García

12-15 urte bitarteko kategoria / Categoría 12-15 años





Ilustratzailea / Ilustradora: **Irati González Galarreta**
(Tinta eta akrilikoa paperean / Tinta y acrílico sobre papel)



Son las doce de la mañana. No puedo dormir. Me llega ese sabor que tanto odio. El que hace que me den escalofríos. El que hace que el sabor se transforme en miedo. Ese que me hace recordar aquella noche en la que el agua se convirtió en sangre por primera vez. ¡Odio tanto ser una vampira!

Aitana Cereijo Rodríguez

12-15 urte bitarteko kategoria / Categoría 12-15 años





Ilustratzailea / Ilustradora: **Kattalin Etxebarria Arrizabalaga**

(Urmargoa, koloretako arkatza, tinta eta collagea paperean / Acuarela, lápices de color, tinta y collage sobre papel)



*Kafea prest ahora sartzeko, ez daukat
beste egitekorik. Etxea, autoa eta
lana galdu ditut, azken kafea hartuko
dut. Mikaztasuna sentitu dudanean,
argia ikusi dut. Laster arte lagun!*

Iker Pérez Ortiz de Mendivil

16-18 urte bitarteko kategoria / Categoría 16-18 años





Ilustratzailea / Ilustradora: **Gwydion López de la Manzanera García**

(Urmargoa, koloretako arkatzak eta tinta paperean / Acuarela, lápiz de color y tinta sobre papel)



En clase, sus miradas se robaron el primer sabor: dulce y tímido. Cada gesto, cada palabra no dicha, cada roce intencionado, tenía el sabor de algo prohibido, algo por descubrir. No se dijeron nada, pero su conexión estaba en el aire, entre la tiza y el crujir de los cuadernos.

Alejandra Alonso

16-18 urte bitarteko kategoria / Categoría 16-18 años





Ilustratzailea / Ilustrador: **Eneko Goikoetxea de Assas**

(Urmargoa, gouache eta koloretako arkatzak paperean / Acuarela, gouache y lápices de color sobre papel)




*Begietara begiratzen diot heriotzari,
baina ez naiz beldur, ezta damutzen
bizitakoaz. Zapore mingotsaz noa
batzuk etxe deitzen dioten leku
honetatik bertan bizi baititudalako
nire momentu preziatuenak,
goxoenak eta bertan uzten dut nire
eredua ere bai. Ama ma*

Erika Ruiz de Arbulo Gilarte

Epaimahaiak aukeratua / Seleccionado por el jurado





Ilustratzailea / Ilustradora: **Lirayen Uriarte Caroca**
(Bit mapa-digitala / Mapa de bits-digital)



Quería recordar antes de olvidarse de todo para siempre. El caramelo en su lengua le sabía a infancia. Las lágrimas corrían por su rostro, saladas y cálidas. Tragó su último sorbo de café y... saltó. En su boca solo quedó la amargura de la despedida.

Oier González de Audícana Castillo

Epaimahaiak aukeratua / Seleccionado por el jurado





Ilustratzailea / Ilustradora: **Iratxe Arrilucea Apraiz**
(Urmargoa eta tinta paperean / Acuarela y tinta sobre papel)

Topa!

*Aspaldi hontan ura garesti dabil esne ta ardotan,
mahats gutxi izan arren, ardorik ez da palta tabernetan.
Jesusek ura ardotu bazun Kanaango eztaietan,
orain ikasle azkarrak sortu zaizkio ardangeletan.*

*Ura gustatzen zaigu eskuak ta aurpegia garbitzeko,
baina napar beltza behar degu, eztarria bustitzeko.
Txanpaina ere edango genuke, norbait balitz emateko.
Pattarra ez da gaizki etortzen bizkarreko hotza kentzeko.*

Santa Agataren koplak (tabernen zatia).

Gaur euskararen eguna dela eta kontratatu naute. Euskararen eguna eta ardo dastaketa bat egitarauan. Amona ados egongo litzateke. Kantak ere horrela dio, *ardo gorri naparra, ardorik hoberena!* Gezurra. Munduan zehar ardoak probatzen ibili ostean, Italian, Frantzian, Kalifornian... Konturatu naiz ezetz, ez dela gure ardoa onena. Errioxakoa da.

Hala ere, enologo batek lana bilatzeko edozer egiten du eta hementxe nago gaur, Gasteizko fakultatean euskal ardoen dastaketa batean. Txukun jantzi naiz, ardo botilak kaxa dotoretan sartu ditut eta hara joan naiz, ardoen munduan izenik ez duen enologo batek eduki dezakeen duintasun guztia soinean daramadala.

Dastatzaileen profila hainbat taldetan banatuko nuke:

- Doan mozkortzera etorri diren ikasleak. Ez ditut epaitzen, nik gauza bera egingo nuke. Gainera, erne ibili dira, bezperan eman behar baitzen izena.

- Zerbait dakienaren plantak egiten dituen 60 urteen bueltako irakasle dibortziatua. Lehen taldekoek gehiago dakite ardoaz.

- Antolatzaileak. Euskara berpiztearen zama bizkarrean daramatela, urduri daude.

- Ardo dastaketa bat zegoela berandu jabetu diren ikasleak: - Nator hona galdetzera aber sartu naiteke. Sartzen utzi diote.

Hasieran zapoak azaltzen hasi naiz: mingotsa, gozoa, umamia... Lan hau konplikatu samarra da, batek sentitu arte ezin baitu bere buruarekin adostu zein den dastatzen ari den zaporea. Gainera, nik ere zapo batzuk ez ditut ondoegi bereizten, beraz garraz, mingots eta mikatz idatzita zeuden diapositiba azkar pasa dut. Normalean egin ohi den bezala zapo bakoitza dastatu eta ulertzeko ez diet ezer ekarri. Dastaketa honekin hilabeteko alokairua kitatzen dut, beraz, Arabar Errioxan (edo ez) eginiko ardorik merkeenak ekarri dizkiet. *Win-win*. Eskerrik asko euskara.

Arabar Errioxako ardoak sor-marka du, mundu mailan ezaguna da eta Araban eta Nafarroa Garaian ekoizten da. Baldintza bio-klimatiko bereziak dauzka... Adibidez, ardo hau gaztea da, kolorean ikus daiteke... Jar ezazue kopa gainazal zuri baten gainean kolorea ongi bereizteko... Mahats mota desberdinak daude, *tempranillo, garnatxa, mazuelo*... Hau dastatuz gero ahoa lehor nabarituko duzue (lehor nabaritu ezean larritu egin beharko lirатеke, 1,30 euro balio baitzuen botilak Mercadonan).

Ardo botilak lehenagotik neuzkan hutsak, ardo txarrez bete ditut eta kito. Eguneko menua duten taberna guztietan egiten dute hori. Kortxoa kentzearen afera pixka bat zailagoa izan da, baina hori ere

xouaren parte bilakatu dut azkenerako. - Bai, zera, botilak jada irekita daude, ardoa kontsumitu baino 15 minutu lehenago oxigenatu egin behar baita. Ardoarekin batera, zanga!, irentsi dute hori ere.

Biratu ezazue kopa ardoaren fruituen lurriak askatzeko, ondoren usain ezazue. Denek jaramon egin didate eta hortxe daude sudurra kopan barruraino sartzen, polizien txakurrek droga usnatzen duten bezala. Hasi da dibortziatuen klub jakituna:

- Le cojo el gusto de la barrica, podría decir... ¿qué es, de madera de nogal?

- Sí, sí, yo he notado un suave ápice de sabor a fram-buesa.

Ezpainak busti besterik ez dute egin. Hobe.

Tetrabrikoko Eroski markako ardoa da. %11 alkohol %89 mierda.

Ikasleek arraro samar begiratu didate, eta batek esan du:

- Tu, honi faltatzen zaio Koka Kola o ke.

Inguruko ikasleek buruarekin men egin dute eta nazka aurpegiz begiratu naute. Zurrutada luze batean edan dute kopa batera erreparorik gabe, ordea. Ardo txarra banatzen jarraitu dut eta aurreko egoerak errepikatu dira. Ardoei gaztainondo, haritz, pago, mugurdi, marrubi, anana (nola anana?)... zaporeak sumatu dizkiete. Hitz eta pitz eta zurrut eta murrut pasa dute ordu erdia. Ikasleak jada algara erraz artean entzuten ditut. Amaierarako ardo on bakar bat utzi dut, iruzur egiten ari naizela ez sinesteko. Kopa garbietan zerbitzatu diet eta orduantxe gertatu da miraria.

- Mihiaren puntan ditudan zentzumen errezeptoreei eskerrak eman nahi dizkiet horrelako ardo xarmangarri eta txundigarria dastatzen uzteagatik, zinez ederra da! Axular berpizteko modukoa, alajaina!

- Bai egia esan, ene bizitza laburreko une zoragarrie-

netako bat izaten ari dela esango nuke, mihia ukitu eta ezin diot ezinegonari eutsi! Hau da gozamen zoroa!!!

Bat-batean afruski, lokiak, mikrouin, alberjina, izeki, asebete, oilaur... Bezalako hitzak hasi naiz entzuten. Ezin dut sinetsi. Zintzurretik behera lehen tanta igaro zaienetik, gela euskal filologoz bete dela dirudi. Ez, gehiago, Xabier Euzkitzez bete da. C2 azterketarako ahozko proban daudela dirudi. Lehen Koka Kolaz hitz egiten ari zen ikasle inpuntualak ere honela esan du:

-Eskerrak eman nahi dizkiot Ama Euskal Herriari, zazpi alabetan ederrena erditzeagatik, Gora Araba, gora arabar ardoa eta gora Euskal Herria askatuta!

-Gora!

-Ez dago ardo hau orbandu, zikindu, laidotu edo belztu dezakeen Koka Kolarik. Horrelako bidegabekeria kartzela zigorraz ordaindu beharko litzateke. Eta norbait horrelako afrunturik egitera ausartzen bada, Euskolarekin izan dadila, bederen.

Horrela jarraitu dute zerbitzatu diedan fundamentuzko lehen ardoari loreak botatzen. Belarriak puztu zaizkit hainbeste hitz ponpoxoren ostean.

Euskararen festa horren erdian botila hutsak jaso (beste baterako) eta alde egitea erabaki dut. Berriaz deituko didate, hori badakit.

Hilabete igaro da mirariazko abenduaren 3 hartatik eta nire ospeak gora besterik ez du egin. Orduz geroztik, telefonoa ezin itzalirik nabil. Denek nahi dute euskara omentzeko dastaketa bat. Eta bai, honela euskaldunduko da Gasteiz, ez Legebiltzarra bertan jarri zutelako, ezta gipuzkoarren inmigrazio masiboaren ondorioz ere. Txorakeria ugari entzun be-

har ditu batek. Ardo dastaketengatik izango da.

Izan ere, jada ez nabil diru eskasian, eta AEKkoak ez dabiltza irakasle bila. Korrika, Paseoa bilakatu dute. Arabar Errioxako mugetan peajeak jarri dituzte. Gardiara goizeko betan joan ezean ez dago aparkalekurik. Euskararen txantxangorria euskararen ardangorria bilakatu da. Mahats moten izenak ere aldatu dira, *tempranilloa* goiztiartxo, *garnatxak* jada euskalduna zirudienez horrela mantendu dute eta *mazuelo* mailukote da orain. Kristautasuna berriz modan jarri da soilik Jesusek ura ardo bilaka zezakeelako. Jainkoa eta kriantza-zaharra da orain Eusko Alderdi Poteatzai-learen lema.

Ezin da gelditu euskararen zabalkundea, Erdi Aroko garaietan baino gehiago ari da zabaltzen. Andaluziaraino ere heldu da, basoerdi bat eskatzeko honela diote: *xikillo* bat mesedez!

Eta hau dena EHUko langileren baten garunaren loditasunari esker. Euskara berpizteko horixe baitzen behar-beharrezkoa. Topa beraz, langile horrengatik, eta Arabar Errioxako ardoarengatik ere! Gora euskara!

E, e, e, ni ardoaren alde
goiz eta arratsalde
beti naiz haren galde
e, e, e, ni ardoaren alde

E, e, e, ni euskararen alde
goiz eta arratsalde
beti nahiz haren galde
e, e, e, ni euskararen alde

Uxue Pérez Mujika

18-24 urte bitarteko kategoria /
Categoría 18-24 años



Ilustratzailea / Ilustradora: **Matiena Urutxurtu Soto**
(Gouachea paperean / Gouache sobre papel)

La cocina de la abuela

Uno de los primeros recuerdos de Lara en la cocina de su abuela fue el día que su abuelo desapareció. Claro que ella eso todavía no lo sabía. No tenía más que seis años y un enorme plato de carrilleras guisadas frente a ella. Aquel era un auténtico banquete de los que no estaban acostumbrados a cenar. ¿Cómo iba a fijarse en que su abuelo no estaba? No sería la primera vez que no llegaba hasta la entrada del postre, y para cuando él entraba tambaleándose, Lara ya solía estar dormida. Pero su abuelo tampoco se presentó al día siguiente, ni al siguiente, y al final su familia dejó de guardarle un lugar en la mesa y mencionarlo en las conversaciones.

Lara no lloró. La ausencia de su abuelo fue tan significativa como arrancar un día en el calendario: una muestra del paso del tiempo, perdida en la inquebrantable cotidianidad de la rutina. Él dejó de estar, pero Lara no dejó de vivir. Y de repente habían pasado días, meses, años, y el recuerdo de aquel hombre capaz de callar hasta a su padre con una sola mirada, se disolvió entre los miles de sabores con los que su abuela le deleitaba el paladar.

Así como pensar en su abuelo solo le evocaba un difuso olor rancio y una súbita necesidad de empequeñecerse, su abuela estaba presente en cada rincón de esa cocina. En el meticuloso orden de las especias; en la silla que ya tenía su forma; en los azulejos que había pintado cuando no estaba ocupada entre fogones. Su abuela estaba en todas partes, porque se había esforzado en dejar su huella. Y ahora que se había ido, aquellos tesoros alterados por su presencia duplicaban su valor.

Lara siempre le había escuchado decir que el plato de su vida estaba formado por todos los sabores que había aprendido de quien tuvo la fortuna de probar de él. Las personas no eran más que un pequeño ingrediente de un menú más grande y, por lo tanto, una pérdida era fácil de arreglar con algún nuevo aderezo.

A Lara le gustaba esa filosofía. Ayudó a mitigar los diferentes duelos que se había visto obligada a guardar desde temprana edad, empezando por el que su abuelo requirió. Lo que no había tenido en cuenta, es que la clave para extraer su efecto balsámico y dejar la impersonalidad de lado, era tener a alguien que la acompañase en el proceso. Y, hasta ahora, ese alguien había sido su abuela, fuerte y robusta como un árbol, proveedora de sombra, cobijo y sostén; inmovible como un faro, siempre erguida proyectando su guía.

Sin ella no quedaba nadie que la apoyase. Sus padres, a todas horas ocupados en gritarse el uno al otro, encontraban poco tiempo para dirigirle alguna mirada o abrazarla, y mucho menos para escucharla. Por primera vez, Lara tendría que mirar al dolor a los ojos. Sin ayuda. Sola.

Aunque su abuela ya había prevenido aquello.

Su regalo no era para cualquiera. Era exclusivamente para Lara, y la esperaba en el rincón que tantas veces había sido testigo de la complicidad entre abuela y nieta. No era fácil verlo a primera vista pero, por suerte, ella conocía cada secreto de aquella cocina, a la que había vuelto tras la dolorosa noticia. Aquella estancia sobre la que había reinado, que llevaba su firma en cada esquina, era lo más cerca que podía llegar a estar de su abuela.

Lara se esforzó por recordar la vida que había transcurrido entre esas cuatro paredes, antes de que esta se evaporara del todo: el día en el que le había enseñado a adobar filetes para celebrar la llegada del nuevo cura, cuando su padre le cortó el pelo mientras su abuela reía, esconderse con ella bajo la mesa para que el abuelo no las viese, el banquete de despedida el último día que lo vio... Todos los recuerdos los cubría la sensación agrídulce de un secreto no revelado, un dolor latente y compartido al que Lara aún no había accedido.

Al final, fue el hambre el que interrumpió el luto que las lágrimas no habían podido pausar. Con más apetito que ganas, se decantó por la salida fácil. No tenía ánimo de prepararse nada, pero si algo tenía que tener de bueno la ausencia de su abuela, es que nadie la reñiría si cogía uno de los dulces prohibidos que guardaba al fondo de una estantería, lejos del alcance de la pequeña Lara. Pero en vez de la caja que se esperaba encontrar, sus dedos toparon con un grueso libro cosido a mano. *"Las recetas de Araceli"* decía en la cubierta. *"Para Lara"*.

Abrió el último legado de su abuela con el corazón en un puño y la necesidad de aferrarse un segundo más a ella en el pecho. Los innumerables manjares que habían marcado su infancia se pasearon frente a sus ojos, evocando con una simple imagen anécdotas e historias de las que Lara nunca se olvidaría. Y, entre todas aquellas delicias, una carta con la inconfundible letra de su abuela.

Hola cariño. Si estás leyendo esto es que ya ha sido hora de pasar el delantal a otra persona. Y no se me podría ocurrir nadie más fuerte y merecedora de mi secreto que tú, mi pequeña Lara.

Antes de empezar a leer, quiero que sepas que en estas páginas vas a encontrar más de lo que nunca te he podido demostrar. Esta soy yo. Esta es quién soy, y quiénes han sido aquellos con los que hemos vivido. Como ya sabes, cada persona es un ingrediente más en el menú de la vida. Así que supongo que esta es la humilde aportación del emplatado de mi sabiduría.

Durante toda mi vida me han llamado artista infinitas veces. Mis platos parecen haber ablandado miradas, corazones y, sobre todo, estómagos, arrancando tales piropos de las bocas que los probaron. Pero cuando me miro en el espejo, no veo nada artístico en mí. Veo un rostro cansado y magullado que el tiempo ha ido llenando de arrugas.

No soy ninguna artista. Tan solo soy una pobre ama de casa que ha encontrado en la cocina un pequeño oasis de paz. Lejos de las injusticias y dolores que acechan más allá de estos fogones, mis platos eran mi manera de explorar el mundo, tanto para conocerme a mí misma, como para descubrir a los demás.

Cada una de las comidas que vas a encontrar en este libro es tan especial como la persona que la ha inspirado. Y es que cada carne es tan única como temperamentos me he encontrado, hija. Por ejemplo, a tu abuelo siempre le gustaron los guisos, y el cura para el que cocinaba antes del padre Fausto, don Honorio, era más de filetes. Eran hombres firmes y decididos,

el padre y mi marido. Hombres con las cosas claras y los pies en el suelo. Puede que nunca acertaran mi nombre a la primera, pero si algo tenían claro es cómo les gustaba la carne. Y no quisiera yo que estuviera pasada de su punto, no, no. Mis reflejos nunca fueron buenos, hija, y ellos sabían cómo conseguir lo que querían. Afortunadamente, mis años de dedicación me ayudaron a pulir mi técnica, cosa que no hubiese sido posible sin aquellos que me empujaron a superar-me, una y otra vez, hasta conseguir el plato perfecto.

Sí, tengo mucho que agradecerles, a ellos, y a todos los que siguieron su ejemplo. Pero sobre todo a tí, que a diferencia de ellos, hiciste que cocinar fuese un verdadero placer. Estoy tan orgullosa de haberte visto crecer fuerte y resuelta, que sé que no tendrás ningún problema con lo que aquí te muestro.

Hasta siempre cariño, espero seguir siendo tan parte de tu vida como estos platos lo han sido en algún momento.

Las palabras se emborronaron bajo las gotas que desprendían los sollozos de Lara. El último adiós de su abuela se sentía... agridulce, un sabor que ella no estaba acostumbrada a preparar. Le había dejado allí, al alcance de sus habilidades, recetas con gusto a infancia, compañía y afecto, pero las había envuelto con un aire de inquietud que contrastaba con la naturaleza calmada de Araceli.

Por primera vez, sintió que no conocía a su abuela. Los platos eran los de siempre, manjares con nombres familiares, como su abuela los presentaba

cuando los hacía: pimientos rellenos de Salvador, costillas San Luis, filetes en salsa de Honorio... Pero algo no cuadraba. Lara siempre le había preguntado por qué no había ninguno inspirado en ella, y pasó rápido las hojas por si aquel era el secreto, un *pollo a la Lara*, acaso.

Entonces cayó en la cuenta. Entre las líneas de aquellas recetas, su abuela le había confiado, solo a ella, los horrores que ni su familia ni su pueblo habían podido procesar. Como, por ejemplo, dónde había ido a parar su abuelo hace tantos años.

**Marieta Martínez de
Arenaza Letamendi**

18-24 urte bitarteko kategoria /
Categoría 18-24 años



Ilustratzailea / Ilustradora: **Eneritz Goirigolzarri Suso**
(Bit mapa-digitala / Mapa de bits-digital)

Okaran marmelada

Duela hilabete pare bat, gutxi gorabehera, udaberriko lehenengo asteetan geundenean oraindik, baratze zaharrera joan nintzen paseatzera, ez dakit zehatz-mehatz zergatik. Normalean nahikoa nuen negutegi handian zehar zuhaitzen artean ibiltzearekin urduritasuna lasaitzeko, baina ordura arte soilik harrotasuna sortzen zidan plastiko gardenezko egitura handi hark zeozer desberdina sorrarazten zuen nire baitan, nire bularrean. Ez nuke jakingo ezinegon horren jatorriari izenik jartzen, baina banekien negutegiak agobiatsu egiten ninduela. Agian horrexegatik irten nintzen baratzeera goiz hartan, haizeak aurpegian eman ziezadan, zuhaitz zaharren azala eskuekin ukitzera.

Gereziondo zaharrak ikusi nituen. Gaur egun bi baino ez ziren geratzen, baina bere garaian bost izan genituen han. Nire amona Anttonirekin adar puntetara igotzen ginen nire arreba Maddi eta biok, gereziak biltzera. Zuhaitz horietako gereziak ez ziren dendetan erosten direnak bezain gorriak, ez ziruditen odolezkoak hozka egiterakoan, baina dendetakoak baino askoz goxoagoak zeuden. Jada ez ditugu ezertarako biltzen, eta txoriek jaten dituzte adarretatik, edo lurrera erortzen dira ustelduta.

Amonaz asko gogoratzen nintzen azken aldian. Ehun urte bete behar zituen aurten, horrexegatik akordatzen nintzen harekin hainbeste, seguruenik. Ile motz urdinuarekin gogoratzen dut, Maddi eta biok udak herrian pasatzen genituenean bezala, gure gurasoek lan egin behar zutelako. Amona Anttonik beti zeramatzan eguzkitako betaurrekoak, praka motzak eta gomazko sandaliak, zikintzen baziren erraz garbitzeko. Errekara karramarro bila jaisten ginenean katiuskak janzen zituen. Maddiri asko gustatzen zitzaion karramarroak arrantzatzea, nahiz eta berak ez zuen bat bera ere harrapatzen, baina niri ez. Nik bus-

titzea ez zitzaidala gustatzen esaten nien amona eta arreba txikiari, baina egiatan karramarroek zitzatzearen beldur nintzen. Amonari bere ontzitik karramarroak kentzen nizkion batzuetan, nirea hain hutsik ez ikustearren.

Gereziondoen alboan zeuden bi pikondoetatik batek bakarrik zirauen zutik. Pikondoaren aurrean lehen sagarrondoak eta udareondoak zeuden, eta irasagar landare bat, baina jada ez zen lur sail hartan ezer erabilgarririk geratzen, basabelarrak eta sasiak baino ez, eta basabelar zelai haren aurrean, baratzeera zerman errepidetik gertu, okaranondoak zeuden, oraindik zutik, baina antzu. Urteak zeramatzaten fruiturik eman gabe.

Beti izan naiz nahiko gozozalea. Pikuak, nahiz eta gereziak bezain goxoak ez izan, izugarri gustatzen zitzaizkidan; eta irasagarra, gaztarekin eta intxaurrekin jateko. Okaranak, ordea, ez hainbeste: garratzegiak ziren niretzat. Hala ere, nire amonarekin biltzea gehien gustatzen zitzaidan fruta zen, nire amona Anttonik marmelada ikaragarri goxoa egiten zuelako haiekin. Dibertigarria zen gereziondora igotzea, adar puntetako gereziak biltzera, baina ezerk ez ninduen hain pozik jartzen okaran berde saski bete batek baino. Maddik laguntzen zigun, nire gogoz kontra, okaranak nik bakarrik bildu nahi nituelako.

Nire amonak baserri moduko bat zuen, baratzeak inguratzen zuena, eta amona hil zenean arrebari eta bioi utzi zigun, herentzian. Amona Anttoni hil eta urtebetera, gutxi gorabehera, bere erdia erosi nion Maddiri. Maddik 24 urte zituen, ikasketa bukatu ez, eta dirua behar zuen. Nik burtsan inbertitzen nekien eta dirua sobera neukan. Operazio erraza izan zen, eta biok irabazle irteten ginen. Hala ere, asko kostatu zitzaidan Maddi konbentzitzea. Uste dut nire gurasoek zentzatu zutela azkenean, salmenta onartzera behartuz kasik.

Baserrian marmelada egiten hasi nintzen, nire amnaren errezeta jarraituz: fruta, azukrea, limoi zukua eta denbora. Lehenengo probak egiten hasi nintzen gereziekin, eta oso goxo, gero pikuekin, eta itzel; eta azkenik pikuekin eta gereziekin aldi berean, eta brutalala zegoen, ikaragarria. Banekien ondo irten-go zitzaidala. Hasieran nik neuk biltzen nituen fruituak eta nik neuk egiten nuen marmelada. Oraindik probatzen nenbilen, ea zein fruitu zihoakion ondoen beste zein fruituri, zer neurritan, zenbat azukre, zenbat limoi. Baina, espero nuen bezala, marmeladarik onena nire amonari hobekien geratzen zitzaiona zen, okaranezkoa: gozoa, garratz punttu txikienarekin, miha zaparez estaltzen zizun horietakoa. Koilarakadaka jan zitekeen, ogirik gabe, opilik gabe.

Proiektuaren hasieran, baserriko sukalde zaharra berritu nuen, eta baita bi sukaldari kontratatu. Herriko eta inguruko dendetan saltzen hasi nintzen, eta kristalezko potoetan "Confituras Anttoni" nik neuk eskuz idatzi, eranskailu txuri batean. Gehien saltzen zena okaran marmelada zen. Produktuak harrera ona izan zuen merkatuan eta zabaltzen hasi zen, eta nik marka komertzial bat sortzea erabaki nuen.

Familiak begi onez ikusi zuen marmeladaren negozioa hasiera batean; amonari eta baserriaren memoriari omenaldi polita zela zioten. Baserriko gelak husten hasi nintzen, logeletatik altzariak, koadroak, oheak eta orogarriak ateratzen, eta nire familiakoen artean banatu nituen. Inguruko terreno batzuk erosi eta negutegia jarri nuen han. Hortxe hasi nintzen senideek negozioarekiko zuten sumina nabaritzen. Nire arrebari ez zion inolako graziarik egiten baserria marmelada fabrika bihurtzea, baina baserria nirea zen, eta nirea zen azken hitza.

Uste dut neba ona izan naizela. Proiektuan parte hartzeko aukera ere eskaini nion, baina berak

uko egin zuen, bere printzipioen kontra ez zuela egin-go argudiatuz. Nik inozoarena egiteari uzteko esan nion, printzipioek ez ziotela jaten emango; ea zer uste zuen, jada ez zela ume bat, ezin zuela gurasoengandik bizitzen jarraitu betirako. Hark iseka erantzun zidan, ez nuela eskrupulurik, ez nuela bihotzik, ea nola egin niezaiokeen hau amona Anttoniri. Harrezkeroztik, ez genion elkarri hitz egiten. Orain arte.

Duela hilabete pare bat, baratze zaharrera joan nintzen paseatzera, haizeak aurpegian eman ziezadan, zuhaitz zaharren azala eskuekin ukitzera. Eta hantxe ikusi nituen. Okaran zuhaitzak, urteak lo zermatzatenak, loratzen hasiak ziren. Ia beldurtuta egin nien so hasieran, mamuak bailiran, okaran zuhaitzetik jaiotzen ziren lore zuri txikiei, ia enbor zaharkitua bezain zuriak. Hiru okaranondo geratzen ziren, oso desberdinak negutegi barruko ilara ordenatueta zuhaitzekin alderatuta: adarrak alde batera eta bestera zihoazen, urteak pasa baitziren azkenengoz inork kimatu zituztenetik, eta atso baten hatzak ziruditen, ia eskeletikoak. Nire amonaren eskuak gogorarazi zizkidaten, okaran beroriek biltzen.

Urduritasun berezi batek hartu ninduen geroztik. Ez nekien lore horietatik fruitua irtengo zenik ere, baina emozionatuta nengoen amona Anttoniren okaran marmelada berriro probatzeko. Ironikoki, "Confituras Anttoni"-k ez zuen okaran marmeladarik egiten. Marmelada negozioarekin hasi nintzenean, azkenengoz bildu nituen zuhaitz horietako okaranak, eta herriko merkatuan saldu nituen azkenengo marmelada potoak. Harrezkeroztik, okaranondoek ez zuten okaran gehiagorik eman. Lore-begiak irten egiten ziren udaberrian, baina lorerik ez, fruiturik ez. Negutegian landatutako zuhaitz berriek agian lurraren pH-a edo holako zeozer aldatu zuten, eta saiakera batzuen ondoren, amore eman nuen, okaran marmeladarik gabe bazen ere, negozioan ondo zihoakidalako.

Okaranak atera zirenean, nik neuk bildu nituen, eskuz. Seinale bat zela pentsatu nuen, amonak ematen zidan opari bat, eta dena astiro eta ondo egin nahi nuen, nire amonak egingo zukeen bezala. Nik neuk egin nuen marmelada etxean, sukaldaririk kontratatu baino lehen egiten nuen bezala; eskuz zuritu nituen okaranak, eta amonaren eltze zahar handian egosi nituen, haren errezeta jarraituz. Okaranak, azukrea, limoi zukua eta denbora. Emaitza potoetan sartu nuen, potoak buruz behera jarri nituen ondo ixteko eta pegatina zuri bat itsatsi nien, "Okaran marmelada" eta eguneko data idatziz.

Familiakoak deitu nituen, etxera etortzeko marmelada dastatzera. Bere garaian izandako ikamikak barkatzeko aitzakia gisa erabili nuen marmelada, eta uste dut denek ulertu zutela. Gurasoak etorri ziren, nire izebak eta lehengusuak ere bai, eta Maddi. Denak etxean zeudenean, kafea egin eta ogia txigortu nuen. Marmelada poto bi atera nituen jakitokitik, eta mahai gainean ipini nituen, eskaintza sakratua bailiran.

Amak ireki zuen potoa, eta koilaratxo batekin dastatu zuen marmelada. Koilara ahoratzean, irribarre batek argiztatu zion aurpegia, eta bere ahizpei esan zien, mesedez, dastatzeko. Nire izebek ogi puska bana hartu zuten eskuetan eta marmelada koilarakada bana jarri zieten tostadatxoeki. Denboran atzera egin zuten, gazteak zirenera, haien amaren okaran marmelada gosalzten zuten garaira. Emozioak nire etxeko sukalde txikia bete zuen, eta amonarekiko hitz politak, istorioak eta oroitzapenak denen artean konpartitzen zizuten bitartean, Maddik gelatik irteteko eskatu zidan begiradarekin. Egongelara sartu ginenean, besarkada handi bat eman zidan, begietan malkoak zituelarik, eta barkatzeko esan zidan, burugogorregia zela batzuetan, eta faltan sumatzen ninduela. Nik ere barkamena eskatu nion, eta estu heldu genion elkarri minutu batez.

—Zorionak, —esan zidan, azkenik,— marmelada amonarena bezain goxoa geratu zaizu. Amona oso pozik egongo litzateke bere marmelada dastatzeko elkartu garelako guztiok. Eskerrik asko hau egiteagatik.

Berriro besarkatu nuen nire arreba, eta sukaldera bueltatu ginen. Nik oraindik ez nuen marmelada dastatu ere egin, nire familiari eskaini nahi niolako aukera, baina bazen garaia. Bigarren potea irekita aurkitu nuen, erdi hutsik, lehenengoa jadanik bukatu zutelako lehengusu guztien artean. Koilara txiki bat hartu nuen eskuetan, eta marmelada berdexkan sartu nuen. Testura ona zeukan, sendoa, baina ez gogorra, kolore polita, okaranen ehunak eta zatiak nabari zitezkeen, usain goxoa. Amona Anttonirena zirudien zinez.

